


AMORE EMAN BARIK



Garapenerako Lankidetzarako
Plan Estrategikoa
2019-2024

EGOAIZIA

www.egoaizia.org

Toribio Etxeberria N° 26
20600 Eibar

egoaizia@egoaizia.org

[!\[\]\(0f848bbd71cef6b345273b16f905912a_img.jpg\)](#) [!\[\]\(d873c0073cfd3b74a7c9b5ca09bad0c7_img.jpg\)](#) [!\[\]\(9126fbb278b6412ee8b215b5e71dadba_img.jpg\)](#) [!\[\]\(bb3ac0ef9759920456d29214b9245205_img.jpg\)](#) @egoaizia

AGURRA

Bizitzan bezala, Egoaizian ere, denborak aurrera egiten du, egoerak aldatu egiten dira, aukera berriak agertzen dira... baina gure konpromisoari irmo eutsi diogu.

Konformatzen ez garelako eta mundua pertsona guztientzat leku justuagoa izan behar duela uste dugulako, gure bigarren Plan Estrategikoan, inguratzen gaituen errealitatearekin beste 5 urterako konpromisoa hartu dugu berriz.

Bidean hona arte lagundu diguten pertsonen ondoan gure lana sendotzen dihardugu eta lankidetzaren eta konpromisoaren bidez errealitatea eraldatu daitekeela sinisten duten etorri berriei esku ematen diegu.

Mugimenduan jarraitu nahi dugu, gogoeta eta ekintza tartekatuz, sarean lanean bazterrak eta errealitateak elkartuz, eraldaketa inklusiboa, justua eta jasangarria bultzatzeko.

Eskerrik asko, zurekin gero eta gehiago garelako.

“ERAMANGARRIA DA LANA,
NEKEA ASKOK PARTEKATZEN
DUTENEAN.”


– HOMERO –

NORTZUK GARA?

Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakunde bat gara, independentea, irekia eta kolaboratzailea, 1999an Eibarren sortua eta 2000. urtean elkarte gisa eratu.

Beste mundu batekin amesten dugu eta hori lortzeko lan egiten dugu:

- ◆ Maila lokalean lan egiten dugu justizia eta garapena lortzeko gure lankide diren pertsona eta komunitateentzat.
- ◆ Errealitate ekitatiboagoak, bidezkoagoak, demokratikoagoak eta solidarioagoak eraikitzen laguntzen dug.
- ◆ Genero ikuspegia txertatzen dugu gure erakundeko maila guztietan.
- ◆ Ezagutzak, ikuspegiak eta baloreak trukutzen ditugu.
- ◆ Bidegabekeriak salatu eta eraldatzen ditugu.
- ◆ Gizarte eredu berriak sustatzen ditugu:
 - > Parte-hartzea eta boluntarioritza indartuz.
 - > Bizimodu arduratsu eta sostengarriagoa proposatuz.
 - > Kontzientziak piztuz eta esperientziak partekatuz.
- ◆ Konprometiturik gaude gizartearen eraldaketarekin, eta, bide horretatik, baita pertsona guztien erabateko garapenarekin ere.





EGOAIZIAKO BALOREAK

- ◆ Pertsonen **duintasuna** bere dimentsio guztietan.
- ◆ **Justizia soziala**, pertsonen ongizatea lortzeko bide bakarra delako.
- ◆ **Aniztasuna** errespetatzea eta onartzea.
- ◆ **Parte-hartzea**, ezinbestekoa delako errealitatea eraldatzeko eta humanizatzeko.
- ◆ **Elkartasuna**, elkar zaintzeko, adiskidetasuna sustatzeko eta auzolana bideratzeko.
 - ◆ Pertsona eta erakundeen arteko **lankidetza** eta **erantzukidetasuna**.
 - ◆ **Berdintasuna**, aukerak eraikitzeko eta erantzukizunak emakume nahiz gizonen artean partekatzeko eta, bide horretatik, gizarte berdinzaleagoa lortzeko.
 - ◆ **Sare-lana** erakundeekin eta pertsona konprometitu eta antolatuekin.
 - ◆ Publikoa den oro **erantzukizunez** kudeatzea, **gardentasunaren** bidez.
 - ◆ Pertsonengandik **hurbil** egotea, tokian tokiko lanaren bitartez.
- ◆ **Jasangarritasuna**, beste bizimodu arduratsuagoa eta naturarekin harreman orekatua duena proposatuz.

“ZURE EKINTZEN
ONDORIOAK ZURE BALOREEN
ERAKUSLE DIRA.”

– CONY FLORES –

GURE EKINTZA-BIDEAK



Horretarako, gure lana **2 ekintza-bide** hauetan zentratzen dugu:

1. Garapenerako Lankidetzak Proiektuak

Munduko beste toki batzuetako (bereziki Peruko) pertsona eta erakundeekin lan egiten dugu, eta komunitateei garapen integrala lortzen laguntzen diegu, beren amets, premia eta gaitasunen arabera proiektuen bidez, beren erritmoak eta kulturak errespetatuz eta elkarrekin ikasiz, hitz eginez, partekatuz eta biziz.

2. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza

- ◆ Errealitate desberdinak hurbiltzen dituzten prozesu eta jardueren alde apustu egiten dugu, kontzientzia kritikoa pizteko eta posible den beste mundu solidario batekin konprometitutako jendea sortzeko.



“POBREZIA EZ DA NATURALA, GIZAKIAK SORTUA DA ETA GIZAKIEN EKINTZEN BIDEZ GAINDITU ETA ERROTIK KEN DAITEKE. ETA POBREZIA ERROTIK KENTZEA EZ DA LAGUNTZA- EKINTZA BAT, JUSTIZIA- EKINTZA BAT BAIZIK.”

– NELSON MANDELA –





- ◆ Ahulezia egoerak sortzen dituzten arrazoiak ikusaraztearen, salatzearen eta eraldatzearen alde gaude, alternatiba komertzialak, ekonomikoak, esku-hartzaileak eta garapen jasangarriaren aldekoak proposatuz, pertsonak eta guztion ongizatea lehenesten dituztenak.
- ◆ Hainbat plataforma, erakunde eta ekimenetan inplikatzeko gara, tokiko politika publikoetan eragina izateko nazioarteko lankidetzaren alde.
- ◆ Truke esperientziak bideratzearen alde apustu egiten dugu, boluntarioak, beraien presentzia eta lankidetzarekin, herrialde pobretuetan babesten ditugun proiektuetan inplikatzerari animatuz.

Bi ekintza-bide hauek garatzeko ezinbestekoa da beste pertsona eta erakunde batzuekin sarean lan egitea eta komunitatean parte hartzea.



ESTRATEGIAK

- ◆ Eraldaketa globalean esku hartu, beste lankidetzaz-eragileekin batera alternatibak sustatuz.
- ◆ Batez ere lokalak diren eragileekin loturak bermatu eta gure lana ezagutarazi.
- ◆ Pertsona boluntarioen eta laguntzaileen parte-hartze konprometitua zaindu.
- ◆ Gure finantziario iturri publikoei eta pribatuei eutsi eta haiek zabaldu.
- ◆ *“Amore eman barik”*: beste mundu hobe bat posible dela sinetsita hausnartu eta jokatu.

